

**Alberto Itoiz Nicuesa** zeharkako txirula ikasten hasi zen bere herriko (Zangoza) "Juan Francés de Iribarren" musika eskolan, eta bukatu, berriz, Iruñeko "Pablo Sarasate" goi mailako musika kontserbatorioan. Nabarmendu behar dira Hendaian eta Parisen egin dituen ikastaroak.

Hainbat talderekin lan egin du, hala nola, "Pablo Sarasate" Haize Instrumentuen Orkestra, Orkestra Gaztea eta Orkestra, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, La Riojako Orkestra Sinfonikoa, Iruñako "Sinfonietta" Orkestra, Zumaiaiko "Sapere Aude Sinfonietta", Miranda de Ebroko Orkestra, "Ciudad de Pamplona" Orkestra, Arrasateko Orkestra, "La Pamplonesa" Banda eta abarrekin, baita ganbera musikako zenbait talderekin ere. Grabaketak eta birak egin ditu Espainian eta Italian zehar eta kontzertuak eman, bakarlari gisa.

Hobekuntza ikastaroak eta master-class direlakoak egin ditu zenbait nazioarte mailako txirula jotzaile ezagunekin: Susan Milan, Antonio Arias, Pierre Wavre, Jaime Martín, Mihi Kim, Hervé Hotier, Wilbert Hazelzet, P. I. Artaud, Magdalena Martínez, Xavier Relats, Bruno Claverie, Horacio Parravicini, Antonio Nuez, Nicole Esposito, Ricardo Gianni, etab...

Irakasle aritu da Errioxan, Nafarroan, Araban eta Gipuzkoan. Zeharkako txirulako ikastaroak eman ohi ditu.

2003tik Gasteizko Udal Musika Bandako txirula jotzaileetako bat da, 2008an oposizio-lehiaketa irabazi zuelarik.

Muramatsu txirulekin jotzen du.

**[www.albertoitoiz.com](http://www.albertoitoiz.com)**

